

MODULUETAKO AKORDIOEN GIDA



Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
(Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza)
(2025eko ekainaren 24ko Fakultate Batzarrean onartua)

0. SARRERA	3
1. IKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK	
1.1. Nori zuzenduta dago moduluko lana?	4
1.2. Lana egitea derrigorrezkoa da?	4
1.3. Moduluko irakasgai guztietan matrikulatuta egon behar dut?	4
1.4. Modulu lanaren kasuan eska dezaket azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatua izatea?	4
1.5. Nola erantzuten diogu modulu lanaren planteamendu orokorrari?	5
1.6. Modulu lana taldekoa bada, guztiok kalifikazio bera izango dugu?	5
1.7. Zer gertatzen da taldekideren batek modulu lanean inplikaziorik erakutsi ez duela frogatzen bada?	5
1.8. Zer gertatzen da modulu lana gauzatzeko prozesuan arazoren bat badugu (moduluko irakasle taldearekin, esleitutako tutorearekin...)?	5
1.9. Zenbat denboraz gordetzen da modulu lanaren kalifikazioa?	5
1.10. Eta modulu lana suspenditzen badugu?	5
1.11. Zer egin daiteke lortutako kalifikazioarekin ados ez bagaude?	5
1.12. Zein da azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzako planteamendua?	6
1.13. Zer gertatzen da plagioa edo iruzurrezko jokaera detektatzen bada?	6
2. IRAKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK	
2.1. Irakasgaiko zenbat kreditu eskaini behar dizkiogu modulu lanari?	7
2.2. Nola esplizitatu behar dugu moduluan izandako parte hartzea eta inplikazioa?	7
2.3. Modulukide gisa, zein beste eginkizun bete ditzakegu?	7
2.4. Zeintzuk dira moduluetak koordinatzaileen eginkizunak? Eta graduetak koordinatzaileenak?	7
2.5. Zein da koordinatzaile berriak aukeratzeko prozedura?	8
2.6. Zein da gure eginkizuna lauhilabeteen zehar?	8
2.7. Zein da modulu bilerak egiteko proposatzen den ordutegia?	8
2.8. Nola adosten da modulu lanaren nota?	8
2.9. Zein da modulu lanaren kalifikazioak argitaratzeko epea?	8
2.10. Zein bide jarraitu behar dugu modulu lanaren kalifikazioak argitaratzeko?	8
2.11. Nola planteatu behar da modulu lanaren errebisio Saioa?	8
2.12. Zer gertatzen da errebisio Saioa gauzatu ondoren ikasleak emandako kalifikazioarekin ados ez badaude?	8
2.13. Ikasleek modulu lana suspenditzen badute, irakasgaia suspenditu behar dute?	8
2.14. Zer gertatzen da ikasleek modulu lana suspenditzen badute?	9
2.15. Zer gertatzen da ikasleak hurrengo ikasturtera igarotzen badira modulu lana gainditu gabe?	9
2.16. Modulu lana suspendituta izan arren irakasgaia gainditutzat eman badugu, ikasleek ez ohiko deialdirako hobetu beharreko lana berrirori orientatu eta zuzendu behar dugu?	9
2.17. Nola ebaluatuko ditugu azken ebaluazioa egiten duten ikasleak?	9
2.18. Zer balorazio eman behar diegu proba edo galdera horiei?	9
2.19. Zer egin behar dugu azken ebaluazioa egiten duten ikasleek	

planteatutako probak edo galderak gaituzten ez badituzte?	10
3. KASU BEREZIAK	
3.1. Zer gertatzen da modulu bateko hiru irakasgaitan baino gutxiagotan (edo lau baino gutxiagotan 5. moduluaren kasuan) matrikulatuta banago?	11
3.2. Zer gertatzen da adaptatutako ikasleekin, gradua lortu nahi duten diplomatuekin eta espediente trasladoa eskatu dutenekin?	11
3.3. Zer gertatzen da mugikortasun programak dituzten ikasleekin?	11
3.4. Zer gertatzen da minor ezberdinetako irakasgaietan matrikulatzen diren ikasleekin?	11
3.5. Eta gradu bat (Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza) gauzatu ondoren bestea egitea erabakitzen duten ikasleen kasuan?	11
3.6. Zer gertatzen da hezkuntzarako premia espezifikoak dituzten ikasleen kasuan?	11
ERANSKINAK	

0. SARRERA

Hezkuntza Graduek, UPV/EHUko hiru Hezkuntza Fakultateetan, moduluen araberako egitura dute. Horrek aldaketa esanguratsuetara egokitzea eskatzen du, batez ere esparru metodologikoan eta ebaluazioan; lehenengo eta behin, moduluaren ikuskerara ohitu behar dugu, hau da, **modulua diziplinarteko irakaskuntza eredu moduan** ulertu behar da, diziplina desberdinen arteko elkarreragin koherente moduan, helburu erkide bati begira: gaitasunak garatzea. Bigarren, moduluko lanaren ikuskerara ohitu behar dugu, hau da, lana moduluetakoko bakoitza osatzen duten irakasgai guztien artean modu bateratuan planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea ezinbestekoa da.

Gida hau graduen inplementazio prozesuan sortu ziren zalantza askori erantzuteko baliagarria da; erantzun horiek Koordinazio Batzordearen kideek egindako lanaren eta modulu ezberdinetan lortutako akordioen fruitua dira. **Asmo nagusia jarduera irizpide orokorrak eskaini ahal izatea da, egitura koherente, funtzional eta jasangarria lortu ahal izateko.**

1. IKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK



1.1. NORI ZUZENDUTA DAGO MODULUKO LANA?

Modulu lana edo diziplinarteko lana ikasle guztientzat planteatzen da, etengabeko ebaluazioa zein azken ebaluazioa egiten dutenentzat.

1.2. LANA EGITEA DERRIGORREZKOA DA?

Adierazitako salbuespenetan izan ezik (3. puntuan jasotakoak), modulu lana edo diziplinarteko lana derrigorrez egin behar da.

1.3. MODULUKO IRAKASGAI GUZTIETAN MATRIKULATUTA EGON BEHAR DUT?

Modulu lana egin ahal izateko gutxienez moduluko hiru irakasgaitan matrikulatuta egon behar da; hirugarren moduluaren kasuan (urte osoko irakasgai batzuen presentzia dago) bi irakasgaitan matrikulatuta egon behar da; bostgarren moduluko irakasgai kopurua kontuan hartuta, lau irakasgaitan matrikulatuta egon beharko da.

Matrikulatutako irakasgai horietan guztietan ezinbestekoa izango da etengabeko ebaluazioaren sistema jarraitzea; ondorioz, matrikulatutako irakasgai horietako batean etengabeko ebaluazioari uko egingo banio, ez nituzke eskatutako baldintza minimoak beteko (aurreko paragrafoan jasota), eta azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzat aurreikusitako planteamendua jarraitu beharko nuke.

Moduluko irakasgaietan etengabeko ebaluazioari uko eginez gero, komeni da moduluko koordinatzaileari jakinaraztea.

1.4. MODULU LANAREN KASUAN ESKA DEZAKET AZKEN EBALUAZIO SISTEMAREN BIDEZ EBALUATUA IZATEA?

Ez, modulu lana ez da irakasgai bat, moduluko irakasgaietan integratutako lan bat (ebaluazio proba bat) baizik; beraz, oro har 1.3 galderan jasotako kasuistikek baldintzatuko dute modulu lana egiteko modua:

1.5. NOLA ERANTZUTEN DIOGU MODULUKO LANAREN PLANTEAMENDU OROKORRARI?

Lanaren orokortasunari erantzuteko, ezinbestekoa da saiatzea lanean modulua osatzen duten diziplinen ikuspegi guztiak kontuan hartzea eta islatzea (horregatik du diziplinarteko izaera). Modulu lan gehienak taldeka egin ohi direla kontuan hartuz, gomendatzen da irakasgai bera edo beraiek baliokidetuta duten ikasleek elkarrekin talde lana ez osatzea.

1.6. MODULU LANA TALDEKOA BADA, GUZTIOK KALIFIKAZIO BERA IZANGO DUGU?

Gerta daiteke horrela ez izatea. Irakasle-taldeak indibidualizatutako kalifikazioak jar ditzake (egoki ikusten diren irizpideen eta ebidentzien arabera); irakasle-taldeak berak, prozesuaren hasieran, horien berri emango dizue.

1.7. ZER GERTATZEN DA TALDEKIDEREN BATEK MODULU LANEAN INPLIKAZIORIK ERAKUTSI EZ DUELA FROGATZEN BADA?

Taldekide horrek suspentsoa edukiko du ohiko deialdian, eta hurrengo deialdietan azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatua izango da.

1.8. ZER GERTATZEN DA MODULU LANA GAUZATZEKO PROZESUAN ARAZOREN BAT BADUGU (MODULUKO IRAKASLE TALDEAREKIN, ESLEITUTAKO TUTOREAREKIN...)?

Modulu lana gauzatzeko prozesuan arazorik sortuko balitz, lehenik eta behin moduluko koordinatzailearekin hitz egin beharko zenukete; arazoa konponduko ez balitz, Graduako koordinatzailea eta Irakas Koordinaziorako Dekanordea jakinaren gainean jarri beharko zenituzkete.

1.9. ZENBAT DENBORAZ GORDETZEN DA MODULUKO LANAREN KALIFIKAZIOA?

Moduluko lanaren kalifikazioa suspenditutako irakasgaia edo irakasgaiak gainditu arte gordeko litzateke.

1.10. ETA MODULU LANA SUSPENDITZEN BADUGU?

Modulu lana irakasgaia gainditzeko ezinbesteko baldintza bada (kontsultatu irakasgai bakoitzeko gidan), hurrengo deialdirako hobetu egin beharko duzue. Moduluko lana ikasturte naturaleko bi deialdietan gainditzen ez baduzue, hurrengo ikasturtean azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzat aurreikusitako planteamendua jarraitu beharko da.

1.11. ZER EGIN DAITEKE LORTUTAKO KALIFIKAZIOAREKIN ADOS EZ BAGAUDE?

Lehenik eta behin, kalifikazioekin batera argitaratuko den errebisio saiora joatea ezinbestekoa da.

Aipatutako saio horretan irakasleek emandako azalpenekin, oraindik ere ados ez bagaude, badago erreklamazio bat jartzea. Horretarako, irakasle-taldeak adostutako zuzenketa eraren arabera, kasuistika hauek ezberdindu behar dira:

- Irakasle-taldeak lan guztiak zuzendu baditu: errebisio saioan emandako azalpenak entzun ondoren oraindik ados ez bagaude, ikastegiko Erreklamazio Batzordearen aurrean kexa bat jar daiteke.
- Irakasle taldeak zuzentzeko beste eraren bat adostu badu (bikoteka, tutorizatutako lanak zuzentzea): zuzenketan parte hartu ez duten irakasleen balorazioa eska daiteke

1.12. ZEIN DA AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEENTZAKO PLANTEAMENDUA?

Irakas Koordinaziorako Batzordeak gomendatzen du ikasle hauek irakasle taldeak adostutako modulu lanari buruzko hainbat galdera edo froga egitea, azterketa deialdi ofizialean (Fakultateak jarritako azterketa egunean). Hori posible ez denean, moduluko irakasle taldeak erabaki dezake irakasgai bakoitzean proba ezartzea.

Edonola ere, modulu lanaren garapena egoki jarraitzeko, etengabeko ebaluazioan ari diren ikasleek bezala, tutoretzak baliatu ahal izango dituzte ikasle hauek.

1.13. ZER GERTATZEN DA PLAGIOA EDO IRUZURREZKO JOKAERA DETEKTATZEN BADA?

Modulu lanean plagioa, zintzotasunik gabeko edota iruzurrezko jarduera detektatuz gero, lana automatikoki suspendituta egongo da, eta hurrengo deialdietan azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatuak izango zarete.

2. IRAKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK



2.1. IRAKASGAIKO ZENBAT KREDITU ESKAINI BEHAR DIZKIOGU MODULU LANARI?

Gutxienez irakasgaiko kreditu bat eskaini behar zaio. Edozein kasutan, modulu lanari edo diziplinarteko lanari gehienez 2 puntuko kalifikazioa eskaintzea gomendatzen da.

2.2. NOLA ESPLIZITATU BEHAR DUGU MODULUAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA ETA INPLIKAZIOA?

Prestaketa, jarraipen eta ebaluazio bileretara joateaz eta horietan parte hartzeaz gain, ezinbestekoa da irakaskuntza gidetan eta ikaslearen gidetan moduluko planteamendua argi islatzea. Moduluko irakasle guztiek ikaslearen gidetan moduluko lanarekin lotutako alderdiak esplizitatu behar dituzte, batez ere ebaluazioarekin lotutakoak.

Aurrekoarekin lotuta, komeni da **irakasgaiaren irakaskuntza gida eta ikaslearen gida** bereiztea. Lehenengoa zuzenean ikus daiteke webgunean, eta bete beharrekoa da irakasgaia ematen duten irakasle guztientzat. Ikaslearen gida, aldiz, aurrekoaren egokitzapen zehaztua da, testuinguru konkretu bakoitzerako moldatua. UPV/EHUK uste du puntu komun batzuei eutsi behar bazaie ere, irakasle bakoitzak bere jarduna egokitu behar duela testuinguru bakoitzera, eta sormenaz eta ikuspegi pertsonalaz jokatu, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobe izan dadin. Ikaslearen gida irakaskuntzaren gidaren "itzulpen" lokal eta pertsonala da, testuinguru jakin baterako egina (Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua, UPV/EHU)

2.3. MODULUKIDE GISA, ZEIN BESTE EGINKIZUN BETE DITZAKEGU?

1. eranskinean zehaztutako eginkizunak kontsultatu.

2.4. ZEINTZUK DIRA MODULUETAKO KOORDINATZAILEEN EGINKIZUNAK? ETA GRADUETAKO KOORDINATZAILEENAK?

1. eranskinean zehaztutako eginkizunak kontsultatu.

2.5. ZEIN DA KOORDINATZAILE BERRIAK AUKERATZEKO PROZEDURA?

2. eranskina kontsultatu.

2.6. ZEIN DA GURE EGINKIZUNA LAUHILABETEAN ZEHar?

Moduluko irakasleek ikasleei beharrezko laguntza eskaini behar diete modulu lana edo diziplinarteko lana egoki gauzatu dezaten.

2.7. ZEIN DA MODULU BILERAK EGITEKO PROPOSATZEN DEN ORDUTEGIA?

Fakultate Batzarrean onartu zen klaserik gabeko tarte bat edukitzea astearteetan (12:00etatik 15:00etara); hori da lehenetsi behar den tarte modulu bilerak egiteko. Ordutegietan onartutako zenbait salbuespen kenduta, gomendatzen da tarte hori ez baliatzea saio lektiboak berreskuratzeko edo programatzeko, era berean, eskatzen da irakasleok tarte horretan tutoretza-ordurik ez grabatzea.

2.8. NOLA ADOSTEN DA MODULU LANAREN NOTA?

Moduluko lana ebaluatzeko oinarria diseinatutako errubrika da; hori modulu gidan jasoko da eta moduluko irakasle guztiek ikasleen lanak errubrika horri jarraituz ebaluatu beharko dituzte. Modulu bakoitzean erabakiko da nola antolatu lanen zuzenketa: lan guztiak, irakasle bikoteka, tutorizatutako ikasleen lanen zuzenketa...

2.9. ZEIN DA MODULU LANAREN KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEKO EPEA?

Etengabeko ebaluazio sistemaren kasuan, modulu lanaren kalifikazioa argitaratzeko 21 egun naturaleko epea egongo da, proba egin edo aurkeztu den egunetik kontatzen hasita. Azken ebaluazio sisteman, azterketa deialdi ofizialean modulu lanarekin lotutako proba gauzatu bada, kalifikazioa 12 egun naturaleko epean argitaratu beharko da.

2.10. ZEIN BIDE JARRAITU BEHAR DUGU MODULU LANAREN KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEKO?

Moduluko koordinatzaileak modulu-kalifikazioak moduluko eGELAN argitaratuko ditu. Kalifikazioekin batera errebisiorako saioaren data zehaztuko da.

2.11. NOLA PLANTEATU BEHAR DA MODULU LANEN ERREBISIO SAIOA?

Irakasle-talde bakoitzak adostuko du nola gauzatu.

2.12. ZER GERTATZEN DA ERREBISIO SAIOA GAUZATU ONDOREN IKASLEAK EMANDAKO KALIFIKAZIOAREKIN ADOS EZ BADAUDE?

Kasu horretan 1.11 galderan zehaztutako prozedura jarraituko da..

2.13. IKASLEEK MODULU LANA SUSPENDITZEN BADUTE, IRAKASGAIA SUSPENDITU BEHAR DUTE?

Irakasgai bakoitzak, hau da, sail bakoitzak erabakitzen du modulu lana gainditzea irakasgaia gainditzeko ezinbesteko baldintza den edo ez, irakaskuntza gidaren ebaluazio irizpideetan esplizitatuz. Gogoratu, era berean, irakaskuntza gida bete beharrekoa dela irakasgaia ematen duten irakasle guztientzat. Irakaskuntza gida

bakarra egongo da irakasgai bakoitzerako, eta irakaskuntza horren ardura duen sailak onartu behar du.

Hala ere, moduluko lana suspendituta izan arren irakasgai guztiak gainditzen badituzte, lanaren balioa zalantzan geratuko litzateke. Honekin lotuta, Koordinazio Batzordeak graduen barruko progresio bat agertzea eta, batez ere, hiru graduen artean alde nabarmenik ez agertzea gomendatzen du.

2.14. ZER GERTATZEN DA IKASLEEK MODULU LANA SUSPENDITZEN BADUTE?

Modulu lana gainditzea ezinbesteko baldintza duten irakasgaien kasuan, ez ohiko deialdian lana aurkeztu behar dute irakasleek eskainitako orientabideak eta gomendatutako hobekuntzak eginda. 1.7an edo 1.13an jasotako kasua bada, orduan, azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatua izango da.

2.15. ZER GERTATZEN DA IKASLEAK HURRENGO IKASTURTERA IGAROTZEN BADIRA MODULU LANA GAINDITU GABE?

Ikasleak moduluko lana ikasturte naturaleko bi deialdietan gainditzen ez badu, hurrengo ikasturtean moduluko lanaren kasuan azken ebaluazioa egiten duten ikasleen planteamendua jarraitu beharko du.

2.16. MODULU LANA SUSPENDITUTA IZAN ARREN IRAKASGAIA GAINDITUTZAT EMAN BADUGU, IKASLEEK EZ OHIKO DEIALDIRAKO HOBETU BEHARREKO LANA BERRIRO ORIENTATU ETA ZUZENDU BEHAR DUGU?

Bai, irakasgaia gainditzeko moduluko lana gainditzea ezinbesteko baldintza moduan ez hartzeko erabakia irakasgai bakoitzari dagokio; hala ere, diziplinarteko lana moduluko gai bat da, guztion eginkizuna da, eta gure inplikazioa eskatzen du; horrek esan nahi du modulu lana gainditu gabe geratuz gero, eta nahiz eta irakasgaia gainditu, irakasleok jarraitu beharko dugula gainditu beharreko lanaren hobekuntzak tutorizatzen eta zuzentzen (moduluan modulu lana ezinbesteko baldintza duen irakasgairik balego, noski).

AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEAK

2.17. NOLA EBALUATUKO DITUGU AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEAK?

Irakas Koordinaziorako Batzordeak gomendatzen du ikasle hauek irakasle taldeak adostutako modulu lanari buruzko hainbat galdera edo froga egitea, azterketa deialdi ofizialean (Fakultateak jarritako azterketa egunean). Hori posible ez denean, moduluko irakasle taldeak erabaki dezake irakasgai bakoitzean proba ezartzea.

Edonola ere, modulu lanaren garapena egoki jarraitzeko, etengabeko ebaluazioan ari diren ikasleek bezala, tutoretzak baliatu ahal izango dituzte ikasle hauek.

2.18. ZER BALORAZIO EMAN BEHAR DIEGU PROBA EDO GALDERA HORIEI?

Moduluko lanari lotuta planteatzen diren probek edo galderek gehienez ere 2 puntuko kalifikazioa jaso behar dute.

**2.19. ZER EGIN BEHAR DUGU AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEEK
PLANTEATUTAKO PROBAK EDO GALDERAK GAINDITZEN EZ BADITUZTE?**

Irakasgai bakoitzak erabakitzen du moduluko probak edo galderak gainditzea irakasgaia gainditzeko ezinbesteko baldintza den edo ez.

3. KASU BEREZIAK ETA SALBUESPENAK

3.1. ZER GERTATZEN DA MODULU BATEKO HIRU IRAKASGAIEN BAINO GUTXIAGOTAN (EDO LAU BAINO GUTXIAGOTAN 5. MODULUAREN KASUAN) MATRIKULATUTA BANAGO?

Irakas Koordinaziorako Batzordeak ikasle hauek modulu lana egin behar ez izatea gomendatzen du. Ondorioz, matrikulatutako irakasgaiaren edo irakasgaiaren kalifikazioa 10etik egingo da, modulu lanari dagokion ehunekoa aplikatu gabe.

3.2. ZER GERTATZEN DA ADAPTATUTAKO IKASLEEKIN, GRADUA LORTU NAHI DUTEN DIPLOMATUEKIN ETA ESPEDIENTE TRASLADOA ESKATU DUTENEKIN?

Egoera berezian dauden ikasleak dira, baliokidetutako irakasgai asko dituztenak eta, horren ondorioz, kurtso desberdinetan kokatutako irakasgaiak burutu behar dituztenak. 1.3 galderan eta 3.1 galderan islatutakoa kontuan hartu behar da.

3.3. ZER GERTATZEN DA MUGIKORTASUN PROGRAMAK DITUZTEN IKASLEEKIN?

Ikasle hauen kasuan sortu ohi diren gorabeherak kontuan hartuz, Irakas Koordinaziorako Batzordeak ikasle hauek modulu lana egin behar ez izatea gomendatzen du.

3.4. ZER GERTATZEN DA MINOR EZBERDINETAKO IRAKASGAIETAN MATRIKULATZEN DIREN IKASLEEKIN?

Irakas Koordinaziorako Batzordeak ikasle hauek minorreko lana (horretarako irakasgai espezifikoak dagoen kasuetan izan ezik) egin behar ez izatea gomendatzen du.

3.5. ETA GRADU BAT (HAUR HEZKUNTZA EDO LEHEN HEZKUNTZA) GAUZATU ONDOREN BESTEA EGITEA ERABAKITZEN DUTEN IKASLEEN KASUAN?

Irakas Koordinaziorako Batzordeak ikasle hauek modulu lana egin behar ez izatea gomendatzen du.

3.6. ZER GERTATZEN DA HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEEN KASUAN?

Beren inklusioa eta garapen pertsonala eta akademikoa, beharrezkoa da ikasle hauen egoera ezagutzea. Egoera bakoitza era zehatzagoan ezagutu ahal izateko, Akademi Antolakuntzako Dekanordearekin (behar bereziak dituzten ikaslearen arduraduna) harremanetan jartzea komeni da; GAURrek iragartzen dituen ikaslearen kasuan komenigarria da, baita ere, moduluaren koordinatzaileak Akademi Antolakuntzako Dekanordearekin harremanetan jartzea.

ERANSKINAK

1. Eranskina. Koordinatzaileen eta irakasleen funtzioak

Graduetako koordinatzailearen funtzioak	Moduluetako koordinatzaileen funtzioak	Modulukideen funtzioak
• Irakaskuntzaren koordinatzailearen Dekanordearekin bildu • Moduluetako koordinatzaileekin bildu eta modulu bakoitzari buruzko informazioa jaso: proposamen metodologikoak, tutorizazioak, aste pedagogikoak, ebaluazioa... • Moduluko irakaskuntza gidak errebisatu, modulu lanari dagozkion alderdiak egoki jaso direla egiaztatzeko. • Titulazioen jarraipenerako txostenak egin. • Moduluen arteko koordinazio bertikala ere zaindu. • Titulazioan sor daitezkeen gatazkak bideratu. • Titulazioaren gidaren eguneraketan lagundu. • Moduluetako Akordioen Gidaren eguneraketan lagundu.. • Titulazioaren irakaskuntzaren hobekuntzarako akzioen jarraipena gauzatu. • Moduluen eta modulu lanen funtzionamendu egokia egiaztatu.	• Koordinazio batzordearen bileretara joan. • Modulu gida prest eduki klaseen hasierari begira. • Moduluko irakasgaiaren batek modulu lana irakasgaia gainditzeko ezinbesteko baldintzatzat jotzen duela ziurtatu. • Aste pedagogikoak eta tutorizazioak programatu. • Moduluen eta modulu lanaren aurkezpena egin ikasleen aurrean. • Moduluan eta modulu lanean zehar sor daitezkeen beharrak edo gatazkak bideratu. • Modulu bilerak programatu. • Bilerak era jasangarrian eta eraginkorrean kudeatu. • Bileren akta helarazi modulukideei, Graduetako koordinatzaileei eta Irakaskuntzaren Koordinatzailearen Dekanordeari. • Moduluko asebetetze inkesta pasa. • Modulu lanaren kalifikazioak eGELAN jarri. • Asebetetze inkesten emaitzak modulukideekin aztertu. • Inkestetan detektatutako hobekuntza alderdiei erantzun ahal izateko beharrezkoak den bilera kopurua programatu.	• Irakasgaiaren irakaskuntza gidan modulu lanari dagozkion alderdiak islatu. • Irakas jardueraren Moduluetarako Akordioen Gidan jasotako jarraituz garatu. • Moduluko bileretan bertaratu eta parte hartu. • Bileren funtzionamendu eraginkorrean lagundu eta moduluko koordinatzailearen lana erraztu. • Modulu lanaren garapen egokirako materialak erraztu. • Bileren aktak errebisatu eta horietan jasotako akordioak eta konpromisoak errespetatu. • Ikasle taldeak tutorizatu moduluko irakasle taldeak adostu duen eran. • Modulu lanak zuzendu eta diziplinarteko ebaluazio saioan parte hartu. • Balorazio saioetan parte hartu, horietatik erator daitezkeen hobekuntza proposamenei kasu egiten.

2. Eranskina. Koordinatzaileak hautatzeko gomendioak

1. **Irakasle batek bere borondatez eskaintzen badu:** ez dira kontuan hartu beharko 2. puntuko irizpideak. Egonaldiaren iraupena adostea baino ez litzateke komeniko (Batzordeak bi ikasturtetan egotea gomendatzen du).

2. **Borondatezko eskaintzarik egin ezean, Batzordeak honako irizpide hauek kontuan hartzea gomendatzen du koordinatzaile berria aukeratzeko:**

2.1. Moduluan gutxieneko esperientzia bat erakustea (ikasturte batez gutxienez aritu izana).

Halaber, honako egoera hauetan, irakasle bat koordinatzaile-eginkizunetik kanpo geratu beharko litzateke:

- Ikasturte berean 3 modulu edo gutxiagotan egotea
- Irakasle izan daitekeenarekiko lasaitasunik ez izatea.
- Modulu horretan edo beste batzuetan duela gutxi koordinatzaile-lanak egin izana.

3. **Irakasle-taldeak adostasunik lortzen ez badu, Koordinazio Batzordeak, kasua aztertu ondoren, proposamena egingo die Egoitza Batzordeari eta Fakultate Batzordeari.**